

**Pobrezia,
desberdintasunak
eta injustiziak:
kausak eta arduradunak**



**Pobreza,
desigualdades
e injusticias:
causas y responsables**



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.iniciativaquienesquien.org

**Pobreza,
desberdintasunak
eta injustiziak:
kausak eta arduradunak**



**Pobreza,
desigualdades
e injusticias:
causas y responsables**

Argitaratzailea/Edita:



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Casa de Asociaciones Simone de Beauvoir
San Ignacio de Loyola 8, 3º, Oficina 1
01001 Vitoria-Gasteiz

☎ 945 28 07 45 ✉ araba@ongdeuskadi.org

Ronda s/n (frente al nº 5), 3º, Oficina C
48005 Bilbao

☎ 944 15 03 00 ✉ bizkaia@ongdeuskadi.org

Iparragirre 8, bajo
20001 Donostia

☎ 943 46 35 26 ✉ gipuzkoa@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org



www.iniciativaquienesquien.org

Laguntzaileak/Colaboran:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Gipuzkoako Foru Aldundia
Foroaren, Turismo, Gazterako eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteiz
UDALA



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetzta Bulegoa
Negociado de Cooperación

Diseinu eta maketazioa/Diseño y maquetación: Marra Servicios Publicitarios s.l.
Itzulpena/Traducción: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzua

Aurkibidea

1.	Aurkezpena	5
2.	Ikasgelan lantzeko hezkuntza-proposamena	10
2.1.	Tiritek ez dute pobrezia sendatzen	14
2.1.1.	<i>Nola dago mundua banatuta?</i> dinamika	18
1.	Eranskina	21
2.	Eranskina	22
2.1.2.	Hausnarketarako gidoia	23
2.2.	Gerraren negozioa	24
2.2.1.	<i>Zein da gure jarrera gerren aurrean?</i> dinamika	26
3.	Eranskina	28
2.2.2.	Hausnarketarako gidoia	31
2.3.	Migratzea ez da delitua	32
2.3.1.	<i>Nondik gatoz eta nora goaz?</i> dinamika	34
4.	Eranskina	37
2.3.2.	Hausnarketarako gidoia	38
3.	Glosarioa	39



Índice

1.	Presentación	47
2.	Una propuesta educativa para trabajar en el aula	52
2.1.	Las tiritas no curan la pobreza	56
2.1.1.	Dinámica <i>¿Cómo está repartido el mundo?</i>	60
Anexo 1		63
Anexo 2		64
2.1.2.	Guión para la reflexión	65
2.2.	El negocio de la guerra	66
2.2.1.	Dinámica <i>¿Cómo nos posicionamos ante la guerra?</i>	68
Anexo 3		70
2.2.2.	Guión para la reflexión	73
2.3.	Migrar no es delito	74
2.3.1.	Dinámica <i>¿De dónde venimos y hacia dónde vamos?</i>	76
Anexo 4		79
2.3.2.	Guión para la reflexión	80
3.	Glosario	81



1.

Aurkezpena

Zein da zein?

sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpaina

Herralde aberastuen eta pobretuen arteko, eta horietan bizi diren pertsonen arteko desberdintasunak eta pobrezia ez dira kasualitatea. Zenbait kausak eragiten dituzte fenomeno horiek, eta identifikatu egin behar dira, horiei aurre egin ahal izateko, horiekin erabat amaitzeko eta, horrela, justizia soziala lortzeko urratsak emateko.

Pobrezia, giza eskubideen urraketak, gizarte-eskubideen murrizketa, gero eta gatazka handiagoak, gerrak, ingurumen-arloko arazoak, aberastasunaren banaketa desberdina eta emakumeen diskriminazioa gure planetako zauri batzuk baino ez dira.

Gure garapen kapitalistaren egungo ereduak, aberastasuna metatzean oinarritzen denak, ez du bermatzen ez bizitza duina pertsona guztientzat, ez ingurumen-iraunkortasunik. Kapitalismoak onura pribatua babesten du, pertsona gehienengoz ongizatearen eta ingurumenaren suntsiketaren kontura. Beste modu batera esanda, gutxiengo bat gehiengoa pobretzearen kontura aberasten da. Credit Suissek egindako *Informe sobre la Riqueza Global de 2015* txostenaren arabera, munduko biztanleen % 1ek -667.000 euro edo gehiagotan baloratuta dagoen ondarea dutenek- munduko gainerako biztanleen % 99ak beste diru likido edo inbertitutako diru du.

Neoliberalismoak sistemaren erdigunean jartzen ditu merkatuak eta, horrela, horien hedapenari bide ematen dio. Ondorioz, transnazionalak eta munduko aberats handien negozioak herrialde pobretuetan ezartzen dira, natura-baliabide ugariak eta eskulan merkeak erakarrira; horrela, bertako pertsonen eskubideak urratzen dira, ingurumena kutsatzen da eta ezinbesteko lekualdatzeak gertatzen dira.

Garapeneko sistema hegemonikoa kontsumo eutsiezinean oinarritzen da eta herrialdeen arteko desberdintasunak iraunarazten dituen, milioika pertsona esplotatzen dituen (batez ere emakume eta neskatok), gatazka belikoak eta sistematikoak eta giza baliabideen bortizkeriak sortzen dituen ekoizpen-sistematik abiatzen da.

Adibidez, herrialde aberastuen produktu eta zerbitzuen kontsumo-maila handiak ingurumeneko krisi eztabidaezina ekarri du. 2005eko *Euskal Autonomia Erkidegoaren azterna ekologikoaren* argitalpenak dakarrenaren arabera, planetan bizi diren pertsona guztiek Euskadiko biztanleok bezala kontsumituko balute, biologikoki produktiboa den planetaren azalera eskuragarri dagoena baino 2,5 aldiz handiagoa izan beharko litzateke horri eusteko. Munduko populazioak Lurraren mugez gain bizi dela erakusten du horrek.

Azken urteotan, krisi ekonomikotik abiatuta (krisi hori soziala, ekologikoa, balioena etab. ere bada), gastu publikoa murriztu da, ongizate-estataua desegin da eta murrizketak izan dira nazioarteko elkartasunari eskainitako aurrekontu-partidetan, besteak beste. Bestalde, Bakea Ikertzeko Stockholmeko Nazioarteko Institutuaren arabera, Espainiako Estatuak 2015ean 12.852 milioi euro baliatu zituen gastu militarerako (barne-produktu gordinaren % 1,3), egunean 35,21 milioi euro, alegia.

Sistema kapitalista aldi berean sistema patriarkalak zeharkatzen du, eta horren oinarria beharrezkoa da kapitalismoak gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak errepika ditzan. Munduko herrialde guztietan dago emakumeen aurkako diskriminazioa eta indarkeria. Elikadurarako eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) arabera, emakumeek garapen-bidean dauden herrialdeetako elikagaien % 60-80 ekoizten dute, eta % 50 mundu-mailan, baina lurraren % 2ren jabe baino ez dira. Era berean, beraiek arduratzen dira familietan eta komunitateetan zaintza-lan gehienak egiteaz, ikusgai ez dauden eta sistemak debaluatzen dituen baina pertsonak bizirik irauteko ezinbestekoak diren lanak, hain zuzen ere.

Orain arte adierazi dugun guztiak erakusten du krisi politikoaren eta zibilizazioaren krisiaren aurrean gaudela. Hala ere, egoera horri buelta eman diezaiokegu eta inguratzen gaituzten injustiziaren, desberdinkeriaren eta pobrezia-egoeren kontzientzia hartu; horrela, irtenbidea aurkitzeko neurri pertsonalak eta kolektiboak hartu ahalgo ditugu.

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeak bultzatzen duen *Zein da zein?* kanpainaren helburua da herritarrei erraz eta modu pedagogikoan azaltzea sistema neoliberalaren eta patriarkalaren ondorio nagusiak, bai

maila globalean, bai tokian toki. Gainera, pobrezia eta desberdintasunak nork eragiten dituen erakusten du, arduradun nagusiak identifikatzen ditu eta alternatibak proposatzen ditu, pertsona guztientzako sistema solidarioago eta bidezkoago batera eramateko.

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea

1988an sortu zen kide diren garapenerako GKEen (GGKE) jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko eta horrek berekin dakar elkarren artean hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea. Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, egun 80 GGKE kide inguru ditu eta 140 egoitza baino gehiago Euskadin.

Garapen lanetan diharduten GKEez osaturiko kolektibo bat da. GGKE hauek Jokabide Kode amankomun bati atxikitzea erabaki dute eta horrela egitura antolatua bat osatu dute lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloetan lan egiteko, genero ekitatean oinarritutako giza garapen iraunkoraren paradigmari jarraituz. Hauexek dira lan arlo garrantzitsuenak:

- Kalitatezko garapenerako lankidetzaren sustatzea euskal erakunde publiko zein pribatuen artean eta kide diren erakundearen artean.
- Kide diren erakundearen prozesuei laguntzea dauzkaten gaitasun politiko zein teknikoak indartuz.
- Gure inguruko eraldaketa soziala bultzatzea herritarren artean elkartzaren kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalak pobreziarekin eta Iparra-Hegoa desberdintasunekin daukan harremanari buruzko eztabaida kritikoa bideratuz.

Hori guztia aurrera eraman nahian, topaketa, eztabaida eta gogoeta espazioak eskaintzen ditu kide diren erakundeek irizpide komunak sor ditzaten. Eragina izaten ahalegintzen da sozialki eta politikoki, aliantzak egiten ditu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko esanguratsua izaten saiatzen da. Horrekin batera, erakundeei laguntzen

die beren lanean, dauzkaten gaitasunak indartzen ditu, beren arteko aliantzak bideratzen ditu eta kolektiboaren esku jartzen ditu kide bakoitzak dauzkan baliabideak eta alderantziz.

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundearen lana eraldaketa sozialaren esparruan kokatzen da, desberdintasunak gaindituz eta mundu justuago baten alde borroka eginez. Mundu osoko beste hainbat talde sozialek bezala, geurea egin dugu *Beste mundu bat posible da* leloa. Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzak oinarritzat dauzka elkartasuna, desinteresa eta dohaintasuna; garapenerako lankidetzak ez da transferentzia ekonomiko hutsa, herri pobretuekin lan egiten da giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatzeke, hezkuntza lortzeke eta herritarrak sentsibilizatzeko eta ohartarazteke badirela hori guztia eragozten duten hainbat mekanismo. Gainera, Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeak, halaber, kide diren erakundeek ekintzak zuzentzen dituzten baloreak islatzen ditu. Garrantzi berezia ematen diogu demokrazia parte-hartzailea, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero ekitatea lantzeari.



2.

Ikasgelan lantzeko hezkuntza- proposamena

Aurkezpen-bideo batek, eta egungo errealitatearen oinarriko alderdiei, besteak beste, pobrezari eta desberdintasunei; gerrei; eta migrazioei heltzen dien beste hiruk osatzen dute *Zein da zein?* kanpaina.

Material horiek oinarri gisa erabilia, jarraian zenbait proposamen didaktiko aurkezten ditugu ikasgelan erabiltzeko eta lantzeko.

Unitate didaktikoaren helburuak

- Hausnarketarako informazioa eta elementuak ematea pobrezari eta desberdintasunei; gerrei; eta migrazioei buruz.
- Gai horien inguruan sentsibilizatzea eta kontzientzia hartzea, gizartea eraldatzeko dugun paper aktiboa geurea eginez.
- Eztabaidatzeko eta iritziak elkarrekin trukatzeko gaitasunak sustatzea.
- Emakumeen errealitatean eta bizipenetan genero-harremanen eragi-nari buruzko ikuspegi kritikoa egitea.

Hartzaileak

Material hau eta bertako dinamikak 14 eta 18 urte bitarteko gazteei daude bideratuta, gutxi gorabehera, bai hezkuntza formalean (DBHko 2. zikloa eta batxilergoa) bai ez-formalean.



Proposatutako metodologia

Aipatutako hiru gaietan (pobrezia eta desberdintasunak, gerra, eta migrazioak) bi metodologiaren bidez ezagutzak zabaltzeko eta sakontzeko aukera eskaintzen dugu:

- Gai bakoitzera hurbiltzeko taldeko dinamika.
- Eztabaida egiteko galderen gidoia.

Hiru bloke tematiko bakoitzerako egiten dugun hezkuntza-proposamena honako 3 urrats hauetan oinarritzen da:

- **1.** Bideoa ikusi gabe, taldeko dinamika egitea.
- **2.** Bideoa ikustea, informazioa eta ikuspuntuak emateko.
- **3.** Eztabaida ireki eta, proposatutako galderekin, analisi-ikuspegiak orientatzea.

Materialak hobeto aprobeztatzeko, gomendatzen dugu aipatutako hiru urratsak burutzea, baina dinamikak independienteak direnez, ez dira hirurak egin behar. Hau da, dinamika bat edo bestea egin daiteke (edo biak), baina beti izango da komenigarria bideoa ikustea.



Azkenik, gidaren amaieran, glosario bat dago, bideoetan erabiltzen diren termino nagusiekin, horiek hobeto ulertzeko edo azalpenen oinarri izateko.

Unitate didaktiko honetan proposatutako eduki batzuk *Jolas eta Ekinek* prestatutako materialen egokitzapenak dira. Giza garapen jasangarrian, herritartasun globalean, giza eskubideetan eta hurren eskubideetan, gazteen parte-hartzean, kulturartekotasunean, iraunkortasun ekologikoan, kontsumo arduratsuan, globalizazioan, genero-zuzentasunean, gatazketan, bakean oinarritzen den hezkuntzan... oinarritutako gizarte-eraldaketarako aholkularitza eta hezkuntzaren zentro sustatzailea da. Baliabide guztiak www.jolasetaekin.org orrian daude eskuragarri.

Zein da zein? ekimenaren informazioa eta materialak www.iniciativaquienesquien.org orrian daude eskuragarri, bai eta material honekin batera doan biltegiatze-memorian ere.

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeak hezkuntza formalean eta ez-formalean inplikaturik dauden pertsonak animatzen ditu unitate didaktiko hau erabiltzera. Halaber, zuen eskura gaude, laguntzarik, aholkularitzarik edo argibiderik behar izanez gero.

Gainera, eskertuko genuke hobekuntza-iradokizunak, material hauen erabilerari buruzko balorazioak, emaitzak eta bestelako iruzkinak igortzea.

2.1. Tiritek ez dute pobrezia sendatzen



Pobrezia termino erabilia da, ez da berria. Ibilbide historiko garrantzitsua du, eta hainbat aldaketa izan ditu gizarte bakoitzaren ohitura zehatzen arabera.

XVIII. mendearen hasieran, pobrezia gaindi daitekeen fenomeno gisa interpretatu zen; aurrerapen teknikoek gizakien zerbitzura dauden ondasun eta zerbitzuak areagotzeko aukera antzemanarazi zuten, eta horrekin, gizakien beharrak asetzeko aukera. XIX. mende-amaieran, azterlan zientifikoaren ikuspegitik heldu zitzaion pobrezia, eta lehenengoz zehaztu zen pobrezia-atalasea, pertsonak bizirik irauteko (eta duintasun-baldintzetan bizitzeko) beharrezko gutxieneko errentaren ezarpenean oinarritzen dena.

Aukera zientifikoekin lotuta, datuak sistematizatzeko ideiak erakutsi zuen hasieran planteatutako tesiak ez zirela zuzenak. Pasa den mendeko 60ko hamarkadan egiaztatu zen hazkunde ekonomikoak ez zuela pobrezia desagerraraziko, fenomeno gisa; beharbada bazeudela "interes" batzuk ondasunak metatzeko eta hazkunde ekonomikoko praktika horretan pobreziaarekin amaitzeko bateraezinak zirenak.

Azken hamarkadotako bilakaerak argi utzi digu pobrezia egoeraren araberako gertakariei eta gertakari kasualei erantzuten ez dien fenomeno delako. Beharbada eztabaidak izan beharko luke pobrezia eragiten duten kausen ingurukoa; eztabaida horretan, konnotazio politikoek argi xurgatu dute hausnarketa zientifikoa, eta ukaezina da interes oso kontrajarriak eta interpretazio anitzak direla nagusi.

Aipatutako interesen artean, nabarmentzekoak dira gaur egungoa bezalako sistema iraunarazi nahi dutenak, aberastasunaren metaketan eta haren banaketa bidegabean eta okerrean oinarritzen dena. Sistema horrek, horrela, Iparraldeko gizarte aberastuetako sektoreetan bizitza pribilegiatuari ematen dio bide, kontuan hartuta hori hala izateak pobrezia, gosea eta egiturazko desberdintasunak eragiten dituela Hegoalde pobretuan.

Transnazionalen boterea

Pobrezia ez da kasuala, baizik eta kausala, argi eta garbi; eta praktika neurrigabe, legez kontrako eta bidegabe batzuek eragiten dute. Praktika horiek batez ere enpresa transnazionalek gauzatzen dituzte. Beraiek kontrolatzen dituzte pertsonen duintasunaren alde egiteko funtsezko sektoreak, besteak beste, ura eta energia, baina, jakina, irabazi-asmoeekin, betiere. Hegoaldeko herrialdeetan ezartzen dira, bertako baliabideak husteko, horrek tokiko biztanlerian edo ingurumenean dituen ondorio dramatikoak entzungor. Izan ere, Repsolen eta BBVAren urteko diru-sarrerak Ekuadorreko eta Guatemalako barne-produktu gordina baino altuagoak dira, hurrenez hurren.



Gainera, egungo sistema kapitalistak bizirik mantentzeko hainbat tresna ditu, besteak beste, Nazioarteko Diru Funtza (NDF) edo Munduko Bankua (MB), eta, aldi berean, haren lana errazten duten tresnak sortzen ditu, besteak beste, merkataritza askeko hitzarmenak. Horien helburu nagusia da estatu eta gobernuai boterea murrizten jarraitzea eta, horretarako, demokraziaren beraren legezketasunarekin zuzenean lotutako oinarriak zalantzan jartzea, arau paraleloak sortzea eta zuzenean enpresa transnazionalen onurarako diren nazioarteko lege eta hitzarmenak sortzea. Afrika, 1960an, elikagaien esportatzaile izatetik zerealen 1/3 inportatzaiera igaro da, besteak beste, horrelako hitzarmenen ondorioz.

Egungo sistema eta pobrezia

Ezin dugu ahaztu egungo sistema kapitalista eta patriarkala sistema bidegabea dela, eta desberdintasunak eta pobrezia eragiten dituela. Dirua da ardatz nagusia; pertsonen benetako beharrianek ez dute lekurik. Sistema hori eliteen onurarako da; hori dela eta, iraurarazteko ahalegina egiten dute.

Garapenerako Nazio Batuen Programaren (PNUD) datuen arabera, egunero bost urte baino gutxiago dituzten 30.000 ume, saihestu daitezken gaixotasunengatik hiltzen dira. Saharaz haraindiko Afrikan, hiru pertsonetatik batek, gosete kronikoa pairatzen du. 2.800 milioi pertsona (munduko populazioaren erdia gutxi gora behera) 2 dolar baino gutxiagorekin bizi da, eragin handiagoa izanik emakumeetan. Fenomeno hau txirotasunaren feminizazioa bezala ezagutzen da, guztiz globalizatua dagoen fenomeno izanik. Bestalde, erakunde beraren arabera, 1.000 milioi pertsona baino gehiagok ez dute ur osasungarrira sarbiderik.

Egungo testuinguruan, gosearekin amaitzeko urtean 30 mila milioi euro beharko lirateke. Espainiako estatuak 220 mila milioi euro bideratu ditu bankuen sektorea erreskatatzeko, gosearekin amaitzeko beharko litzatekeen kopurua halako 7.

Azken hamarkadotan, Nazio Batuek, bertako 182 estatuen bidez, nazioarteko adierazpen garrantzitsuak berretsi ditu, pobrezia eta desberdinkeria aurka borrokatzeko. Horren adibide dira, besteak

beste, Milurteko Garapen Helburuak. 2000. urtean onetsi ziren, eta 2015ean amaitu, eta betetze-indizea eta -bilakaera negatiboa izan da. Horrela, egiaztatu da pertsona aberastuen eta pobretuen arteko arrakala handitu egin dela.

Lehenengoan porrotaren ondoren, 2015ean Nazio Batuek Garapen Jasangarriko Helburuak onetsi dituzte, 2030era arteko garapenaren agenda berria markatzeko. Helburu horiek betetzeko, estatu kideen konpromiso argia beharko da, baina hori kontu konplexua da; izan ere, lehenago aipatu dugun moduan, estatuak boterea galtzen ari dira nazioz gairako botere pribatuen alde.

Sistema kapitalista eta enpresa transnazionalak, haren eragile nagusi gisa, erabakigarriak dira pobrezia iraunarazteko. Baina badakigu alternatibak daudela. Gizarte zibil antolatuan sinesten dugu, beren eskubideak aldarrikatzen dituen gizarte batean, eta uste dugu lehentasun politikoek pertsonak erdigunean kokatu behar dituztela. Gutxiagorekin bizi behar dugu, guztiok hobeto bizi ahal izateko.



2.1.1. Nola dago mundua banatuta? dinamika



Gaia

- Baliabideen banaketa munduan



Helburuak

- Desoreka demografiko eta ekonomikoak ikusaraztea
- Desoreka horien arrazoen gainean hausnartzea



Baliabideak

- Gutxienez 12 pertsonako taldea
- Parte-hartzaile beste aukeri
- Eremu geografikoak identifikatzeko kartelak:
 - EEBB eta Kanada
 - Europa
 - Asia eta Ozeania
 - Afrika
 - Latinoamerika, Karibe eta Mexiko
- Biztanleen eta aberastasunaren zifrak biltzen dituzten taulak (1. eta 2. eranskina)



Denbora

45 minutu



Dinamizatzaileak kontinenteen kartelak banatuko ditu aretotik zehar (hormak, kortxoak, zutabeak...).

Garapena

Ikasgelaren erdian parte-hartzaile beste aukeri jarriko dira.

Pentsa dezagun aretoa mundua dela, eta talde osoa bertako biztanleria dela (7.500 milioi pertsona inguru). Beraz, parte-hartzaile bakoitzak 1. eranskineko taulan (azken zutabearen) ageri diren milioika biztanleen kopuru zehatza ordezkatuko du.

Hori kontuan hartuta, pertsonak libreki banatuko dira kontinenteetan, kartelek mugatzen dutenaren arabera, eta, horretarako, biztanleria munduan zer proportziotan banatzen den hartuko da kontuan.

Ondoren, banaketa 1. eranskineko taularen datuen laguntzarekin egokituko da eta honako hausnarketarako bide emango da:

Hausnarketa

- Zergatik jarri zarete horrela?
- Espero zenuten horrela izatea?
- Zer gertatu zaizue deigarrien munduko biztanleriaren banaketan?

Jarraian, pertsona bakoitza bere posizioan geratuko da, eta taldeari jakinaraziko zaio gelaren erdian dauden aukierik eremu bakoitzeko aberastasun ekonomikoa ordezkatzen dutela (ez baliabideak, baizik eta biztanleriak duen dirua). Eskatuko zaie kontinenteka banatzeko erdigunean dauden aukiak. Banaketa hori eremu bakoitzean beren ustez dagoen aberastasun/pobrezia mailarekin proportzioan egingo dute. Aukeri asko dituzten zonaldeetan kokatutako pertsoneri, hauek disfrutatzea gomendatzen zaie (aukietan etzatea, atzeraka botatzea, hankak aukeri gainean jartzea, nagia ateratzea...). Bitartean, aukeri gutxi dituzten eskualdeko pertsoneri hauek partehatzea gomendatzen zaie.

(aulki batean pertsona bat baino gehiago eseritzea, beste batzuk aulkirik ez dutelako lurrean eseritzea, etab.). Era honetan, diru asko edo gutxi izatea esperimentatu dezakete, dinamika norbanakoaren bizipenetatik garatuz.

Aulkien banaketa 2. eranskineko taularen daten laguntzarekin egokituko da eta hausnarketarako bide emango da.

Dinamika honen helburua kontinenteen baliabide ekonomikoen banaketa desorekatua ikusaraztea da. Horretarako, ondasun ekonomikoetan zentratzen gara, bistatik galdu gabe beste parametro batzuk ere badaudela herri edo bertan bizi diren pertsonen aberastasuna edo garapena neurtzeko (solasaldian aipatu daitezkenak, hain zuzen ere), besteak beste emakume eta gizonen arteko ekitatea, ingurugiroaren jasangarritasuna, baliabideetara sarbide berdina izatea, zoriontasuna eta ongizate kontzeptuak... Banaketa ezberdina hori kontinenteen eta herri bakoitzaren baitan ere ematen dela ezin dugu alde batera utzi ezta ere:

Hausnarketa

- Zer gertatu zaizue deigarrien edo zerk harritu zaituzte?
- Eroso zaudete? Horrela ondo bizi zaitezke? Zer ondorio ditu horrek?
- Uste al duzue zifra globalak nahikoa direla herrialde bakoitzaren barruan gertatzen dena azaltzeko?
- Nor ari da aulkietaz gehien disfrutatzen, gizonezkoak ala emakumezkoak? Honen zergatia zein izan daiteke? Egoera hau errealitatearekin bat datorrela uste duzue?
- Nor dira pertsonarik ahulenak banaketa horretan mundu mailan?
- Uste al duzue, orduan, dirua duten herrialdeetan ez dagoela jende pobreturik? Uste al duzue Iparraldeko eta Hegoaldeko pertsonen pobretze-kausak berak direla?

I. Eranskina

Parte-hartzaileen kopurua	Afrika	Europa	Asia eta Ozeania	Latinoamerika, Karibe eta Mexiko	EEBB eta Kanada	Parte-hartzaile bakoitzak ordezkatzeko duen milioi biztanle kopurua
12	2	1	7	1	1	624
13	2	1	8	1	1	576
14	2	1	9	1	1	535
15	2	2	9	1	1	499
16	2	2	10	1	1	468
17	3	2	10	1	1	440
18	3	2	11	1	1	416
19	3	2	11	2	1	394
20	3	2	12	2	1	374
21	3	2	13	2	1	356
22	4	2	13	2	1	340
23	4	2	14	2	1	325
24	4	3	14	2	1	312
25	4	3	15	2	1	299
26	4	3	16	2	1	288
27	4	3	16	3	1	277
28	4	3	17	3	1	267
29	4	3	17	3	2	258
30	4	3	18	3	2	249
31	5	3	18	3	2	241
32	5	3	19	3	2	234
33	5	3	20	3	2	227
34	5	4	20	3	2	220
35	5	4	21	3	2	214
36	5	4	22	3	2	208
37	6	4	22	3	2	202
38	6	4	23	3	2	197
39	6	4	23	4	2	192
40	6	4	24	4	2	187

Munduko populazioaren banaketa (7.485 milioi biztanle):

- Europa: 780
- Asia eta Ozeania: 4.550
- EEBB eta Kanada: 356
- Latinoamerika, Karibe eta Mexiko: 684
- Afrika: 1.115




2. Eranskina

Parte-hartzaileen kopurua	Afrika	Europa	Asia eta Ozeania	Latinoamerika, Karibe eta Mexiko	EEBB eta Kanada	Aulki bakoitzak ordezkatzan duen mila milioi dolar
12	1	3	4	1	3	6.267
13	1	3	4	1	4	5.785
14	1	3	5	1	4	5.371
15	1	4	5	1	4	5.013
16	1	4	6	1	4	4.700
17	1	4	6	1	5	4.424
18	1	5	6	1	5	4.178
19	1	5	7	1	5	3.958
20	1	5	7	1	6	3.760
21	1	5	8	1	6	3.581
22	1	6	8	1	6	3.418
23	1	6	8	1	7	3.270
24	1	6	9	1	7	3.133
25	1	7	9	1	7	3.008
26	1	7	9	1	8	2.892
27	1	7	9	2	8	2.787
28	1	7	10	2	8	2.686
29	1	8	10	2	8	2.593
30	1	8	11	2	8	2.507
31	1	8	11	2	9	2.426
32	1	8	12	2	9	2.350
33	1	9	12	2	9	2.279
34	1	9	12	2	10	2.212
35	1	9	13	2	10	2.149
36	1	9	13	2	11	2.089
37	1	10	13	2	11	2.032
38	1	10	14	2	11	1.979
39	1	10	14	2	12	1.928
40	1	10	15	2	12	1.880

2016ko barne-produktu gordina (75.200 mila milioi dolar):

- Europa: 19.500
- Asia eta Ozeania: 27.000
- EEBB eta Kanada: 22.000
- Latinoamerika, Karibe eta Mexiko: 4.200
- Afrika: 2.500



2.1.2. Hausnarketarako gidoia

Aurretik gai honen inguruan jarduerarik egin ez bada, bideoa ikusi baino lehen komeni da taldeari galdera ireki bat proposatzea, sarrera modura:

Nor dira munduan pobreziaren eragilerik handienak?


Ideiak idatziz jasoko dira, gero bideoan emandako informazioarekin egiaztatu ahal izateko.

Baterako hausnarketa bideoa ikusi ondoren:

Hausnarketa ←

- Zergatik da garrantzitsua jakitea zein diren munduan pobreziaren eragilerik handienak?
- Zer paper dute enpresa multinazionalak munduko aberastasunaren banaketan? Ezagutzen al duzu energia-enpresarik?
- Zer da kanpo-zorra? Zergatik kanpo-zorrak eragiten du pobrezia?
- Zein dira pertsonarik ahulenak aberastasunaren banaketa bidegabe horretan?
- Zer uste duzu behar dela pobreziarekin amaitzeko? Ezagutzen al duzu egoera horri dagoeneko aurre egiten dion ekimenik?
- Planetako leku batzuetan beharizan material nahikoarekin bizitzeko, beharrezkoa al da beste leku batzuetan baliabide gutxiago kontsumitzea? Banaketa bidezkoagoa izan dezakegu?
- Uste al duzu, bideoak dioen bezala, hobeto bizi gaitzkeela gutxiagorekin? Zein izango lirateke bete beharreko funtsezko beharizanak, ongizatea edukitzeko?
- Ba al dugu guk erantzukizunik? Zer egin dezakezu zuk?
- Ikusten/irakurtzen/entzuten dituzu albisteak? Pobrezia eta desberdinkeria zergatik sortzen diren ulertzen laguntzen dizute?

2.2. Gerraren negozioa



Gatazka armatuak hondamena dira. Sufrimendua eragiten dute eta giza eskubideak urratzen dituzte. Baina, aldi berean, armen industria eta industria militarra urtero munduan diru gehien mugitzen duenetako bat da, eta gerra negozio errentagarria dela erakusten du. Negozio horrek bi xede ditu.

Batetik, herrialde aberastuek jarraitzea beste herrialde batzuk menderatzen, beren baliabideez, petrolioaz, lurraldeaz... jabetzen, haien sistema ekonomikoa (kapitalismoa) eta politikoa (inperialismoa) ezartzen, kontuan hartuta horiek guztiek arriskuan jartzen dituztela planetaren biziraupena eta etorkizuneko belaunaldiak. Bestetik, armen industria elikatzen jarraitzea ere bilatzen dute.

Ez du axola planeta krisian egoteak eta gastu publikoan murrizketak egoteak; gastu militarra ez ukitzeaz gainera, areagotu egiten da. Urtero, gero eta diru gehiago gastatzen dugu armetan, eta, bitxia izanik ere, diru gehiago gastatzen da gutxiago duten herrialdeetan. Armen industriak milaka milioi irabazten ditu eta munduko gobernu boteretsuenen laguntza politikoa eta ekonomikoa du. Ez du krisi hitza ezagutzen, eta paparra ateratzen du ezegonkortasuna eta gatazka armatu berriak bereizgarri dituen testuinguru geopolitikoaren erdian. Afrikan, gastu

militarrek % 62 egin dute gora azken 10 urteotan, munduko batez besteko gorakada % 49koa izan dela kontuan hartuta.

Errealitate horren asmoa adierazteko, datu hau proposatzen dugu: armen munduko fabrikatzaile nagusiak (Lockheed Martin) urtero 34.000 milioi euro baino gehiagoko diru-sarrerak ditu; zifra hori 97 herrialdetako barne-produktu gordina baino handiagoa da, eta Nazio Batuek bakerako misioetarako duen aurrekontua halako bost.

Gatazka armatuen ondorioak gorabehera, interesak daude (ekonomikoak, geopolitikoak etab.), gatazka horiek sortzen jarraitzeko. Gerrak batez ere herrialde pobretuetan sortzen dira, menderakuntzaren beste adierazle bat.


Gatazka armatuetan, patriarkatua emakumeenganako sexu-indarkeriaren erabileraren bidez adierazten da, gerra-arma gisa. Horrela, emakumeen aurkako sexu-indarkeria gerra-estrategiaren alderdi bat izan da, arerioa sinbolikoki umiltzeko.

Tradizioan estatuek estalitako funtsezko eskubide batzuk esku pribatuetan uzten joan dira, eta horren ondorioak esanguratsuak izaten ari dira, bai herrialde pobretuetan, bai aberastuetan. Gainera, enpresa transnazional batzuk kontrolik gabe dihardute lehenengoetan eta, horrela, lan-eskubideen abusuak eragiten dituzte, bai eta ingurumenean ondorio larriak eta biztanleen lekualdatzea ere. Baliabide energetikoen ondoriozko gerrek eta gatazka armatuek, dagokien armen gastuekin, berez ahultasun-egoeran bizi diren biztanleak are gehiago pobretzen dituzte.

Gastu militarra 224 dolarrekoa da planetako biztanle bakoitzeko, eta munduko barne-produktu gordinaren %2,7. Noiz arte jarraituko du armen industriak erakunde publikoen laguntza ekonomikoa jasotzen?



2.2.1. Zein da gure jarrera gerren aurrean? dinamika





Garapena

Taldeari honako galdera hau egingo zaio:

Imajinatzen dut gaur egun gerran dagoen herrialderen bat ezagutuko duzuela. Esan dezake inork baten bat? Zer gerraz hitz egiten da gaur egun albisteetan?

Ezagutzen dituzten gerrak esan ahala, mapan herrialdeak markatzen joango gara, *post-it* txikien bidez. Informazioa egiaztatzeko eta gatazka horiek non gertatzen ari diren ikusteko, 3. eranskina balia dezakegu.


Jarraian, 4 edo 5 pertsonako talde txikiak osatuko ditugu. Talde bakoitzari hiru kartoi mehe emango dizkiogu (berdea, gorria eta horia). Irakaslea edo dinamizatzailea jarraian zehaztuko ditugun esaldiak irakurtzen joango da, eta taldeek eztabaidatu beharko dute ados dauden ala ez, edo zalantzazko jarrera duten ala ez. Gutxi gorabehera bi minutu izango dituzte eta, gero, kartoi mehe berdea altxatu beharko dute ados badaude, gorria ados ez badaude edo horia zalantzak badituzte¹:

- Gerren helburua bakea lortzea da.
- Gerra batzuk humanitarioak dira giza eskubideak defendatzen dituztelako. Batzuetan, soldaduak bidali behar dira giza eskubideak errespetatzen ez dituzten herrialdeetara.
- Gerra guztietako motibo bat arrazoi erlijiosoak dira.
- Gerra askoren interes nagusia ekonomikoa da, herrialde horietako aberastasuna kontrolatzeko egiten dira.
- Gizonek emakumeek baino gehiago jasaten dituzte gerren ondorioak, emakumeak normalean ez daudelako frontean.

Une honetan, eztabaida hasiko da. Talde bakoitzak bere kartel mehearen kolorea zergatik aukeratu duen azalduko du.

¹ Kartoi meherik eduki ezean, parte-hartzaileei eska dakieke ikasgelaren erdian ilara bat egiteko. Proposatutako esaldiarekin ados dagoena ikasgelaren ezkerreko aldean jarriko da. Ados ez dagoena, eskuinekoan. Zalantzak dituena erdian geratuko da. Eztabaida sortu bitartean, parte-hartzaileak mugitu ahalko dira eta hasierako taldeaz bestelakora joan ahalko dira.

3. Eranskina



Gerra handiak

Kongoko gatazka



Afganistango gerra zibilak (1978 eta 2001)



Somaliako gerra zibila (1991)



Siriako gerra zibila (2011-2014)




Drogen trafikoaren aurkako gerra Mexikon (2006)




Estatu Islamikoaren aurkako gerra


Irak, Siria, Libia, Afganistan, Egipto, Nigeria,
Libano, Jordania, Yemen, Iran, Errusia




Estatu Batuek atera ondorengo matxinada Iraken (2011)




Pakistango iparmendebaldeko gerra (2004)




Sudaneko hegoaldeko gerra zibila (2013)




Xiiten matxinada Yemenen (2004-gaur egun)




Palestina-Israel artekoa (1948tik)




Ukrianiaren Ekialdeko gerra zibila (2014)



Islamiar matxinada Nigerian (2009)



Libiako gerra (2014)



2010etik honako intentsitate txikiko beste gatazkak

Nazio batuek "intentsitate txikiko gerrak" esamoldea ere erabiltzen dute urtean 1.000 hildako baino gutxiago diren kasuetan.


Yemeneko Al-Qaeda matxinada (2010)

 2.207 hildako


Sinaiko matxinada (2011)
Egipto

 1.540 hildako

Malin egindako esku-hartze militarra (2013)

 1.000 hildako


Libanoko gatazka (2011)

 722 hildako


Barkhane operazioa (2014)
Mauritania, Mali, Burkina Faso, Niger, Txad

 600 hildako

Golan lurraldeko gatazkak
(2012-2014) Israel eta Siria

 200 hildako

Bareingo matxinada (2011)

 93 hildako

Turkia eta Siria arteko krisialdi diplomatikoa (2012)

— daturik gabe

2.2.2. Hausnarketarako gidoia

Aurretik gai honen inguruan jarduerarik egin ez bada, bideoa ikusi baino lehen komeni da taldeari galdera ireki bat proposatzea, sarrera modura:

Zer gerra ezagutzen ditugu? Zergatik sortzen dira gerrak?


Ideiak idatziz jasoko dira, gero bideoan emandako informazioarekin egiaztatu ahal izateko.

Baterako hausnarketa bideoa ikusi ondoren:

Hausnarketa

- Nork ateratzen die etekina gerrei? Eta nor ateratzen da kaltetuta?
- Zer ondorio dituzte gerrek? Zuzenean parte hartzen duten pertsonengan baino ez dute eragina?
- Gerra bat humanitaria izan daiteke? Zergatik?
- Desberdinak dira ondorioak mutikoengan eta neskatuengan? Eta emakumeengan? Zertan?
- Legezkoa al da armak saltzea legez hautatutako gobernu bati boterea kendu nahi dietenetatik defendatzeko?
- Herralde bat bakean bizi denean, zer eskubide izan beharko lituzkete herritarrek?
- Ezagutzen al duzu gerren kontrako ekimenik? Nork eraman ditu aurrera? Zer egin dezakegu guk gai horren inguruan?
- Uste al duzu komunikabideek gerren benetako kausei buruzko egia kontatzen dutela? Zerk eragiten du komunikabide batek gerra batean gertatzen ari dena kontatzeari uztea?

2.3. Migratzea ez da delitua



Gizateriaren historia migrazio handien historia da. Migrazio-mugimendu bakoitzean gizakia bere jatorrizko lekutik lekualdatu da. Afrikatik Asiarako migrazioa eta, gero, munduaren gainerako lekuetara, duela 70.000 urte inguru hasi zen, eta oraindik ere martxan dago. Pertsonok beti irten izan gara gure inguruetik bizi-baldintza hobekak eskaintzen dituzten beste leku batzuetara joateko. Gaur egun, mundu globalizatu honetan ere mugitu egiten gara, baina mugitzeko motiboak ez dira berak pertsona guztiontzat. Lekualdatze horien sailkapena egin dezakegu, planetaren zein lekutan gauden kontua hartuta:

- Iparraldetik Hegoalderako lekualdatzeak. Jendeak iparraldeko herrialde aberastuetatik Hegoaldeko herrialde pobretuetara bidaiatzeko arrazoi nagusia turismoa da. Oporretan joateko, ezagutzeko, atsedean hartzeko, gozatzeko... bidaiatzen da. Batzuetan, ingurumena zaintzeagatik eta bertan bizi diren pertsonen ohiturak errespetatzeagatik erantzukizun gutxierekin. Bidaia horietarako, ez dago muga gehiegirik: guztiak zeharkatu daitezke bisatuarekin eta dibisekin.
- Hegoaldetik Iparralderako lekualdatzeak. Pertsonak lekualdatzeko kausa nagusiak askoz ere handiagoak eta premiazkoagoak izaten dira: gosea, gerra, jazarpena eta lana bilatzea. Azken batean, gutxieneko duintasun-baldintza batzuetan ezin bizi izatea. Hemen badaude mugak: batzuek baimen, paper, hesi, kontzertina, horma, patera edo tiro egiten ari diren poliziaren itxura dute.

Milioika pertsonak milaka eta milaka kilometro egiten dituzte baldintza latzetan. Hegoaldeko mugara Afrikatik heltzen diren hiru emakume migratzailetatik bik sexu-indarkeria jasan dute bidean. Pertsona horiek ahalegina egiten dute gure mugak gainditzeko, itxita,

blindatuta daudela jakin gabe, futbolari edo pertsona aberatsentzat izan ezik. Europar Batasunean aurkezten diren eskabide guztietatik, Espainiako estatuak % 0,9 baino ez ditu jasotzen.

- Hegoalde-Hegoalde lekualdatzeak. Pertsona horiek ere gosea, gerra eta jazarpena jasaten dituzte. Eta nahiz eta sekula ez dugun komunikabidean entzungo, lekualdatze horiek askoz ere sarriago izaten dira Hegoaldetik Iparralderako migrazioak baino. Garapen-bidean dauden eskualdeek hartzen dituzte pertsona errefuxiatuen % 86, funtsean Turkiak, Pakistanek, Libanok, Irakek, Etiopiak eta Jordaniak.


ACNURen datuen arabera, 2015. urte-amaieran, mundu osoan 65,3 milioi pertsona zeuden nahitaez lekualdatzeko egoeran. Horrelakorik ez da egon II. Mundu Gerratik. Pertsona horietatik, 21,3 milioi errefuxiatuak ziren, 40,8 milioi barneko lekualdatuak eta 3,2 milioi asilo-eskatzaileak.

- Iparralde-Iparralde lekualdatzeak. Migrazio horiek oraintsuagokoak dira eta 2007tik Europa suntsitzen ari den krisi sistemikoan dute jatorria. Europako Hegoaldean baliabiderik ez duten pertsonak, prestakuntza bai baina ez lanik ez eta itxaropenik dutenak, kontinente bereko iparraldera bidaiatzen dute. 2009tik, Erresuma Batuan bizi diren Espainiako estatuko pertsonen kopurua % 44 hazi da, eta Alemanian bizi direnena, berriz, % 20.

Azken batean, pertsonak lekualdatu, mugitu egiten dira, eta hori ez da arazoa. Migratzea ez da delitua. Delitua migrazioa eragiten duten kausa asko dira. Delitua da Hegoaldeko herrialdeak hondatzea, bertako aberastasunak hustea, multinazionaleri bidea irekitzea beren baliabideekin amaitzeko, eta gero, gure mugak ixtea. Delitua da hormak erakitzea eta beste alde batera begiratzea, milaka pertsonak beren herrialdeetatik ihes egiteko arrazoiak gure errealtatearekin, Iparraldearekin, gure sistema kapitalista eta patriarkalekin zerikusirik izango ez balu bezala. Delitua Siria bonbardatzea da eta, gero, gerratik ihesean Europan sar daitekeen pertsona-kopurua mugatzea.



2.3.1. *Nondik gatoz eta nora goaz?* dinamika






→ Garapena

Jarduera hau egiteko, parte-hartzaileek aurretik honako informazio hau batu behar dute etxean:

- Zortzi abizen (gehienez).
- Senideen eta urteetan zehar egun arte egin dituzten mugimenduen jatorria. Adibidea: "Nire aitona-amonak ...e(n) jaio ziren, baina ...(e)ra bizitzera joan ziren; izan ere..."

Pertsona bakoitzak familiako mapa/zuhaitz genealogiko² batean modu errazean informazio hau irudikatu behar du; askatasuna izanda berak nahi duen moduan irudikatzeko (diagramak, marrazkiak...). Aurreko bi belaunaldietan egon diren migrazio-fluxuak irudikatu behar dira.



